

HERRI-AITORTZA 2024

OINARRIAK

1. artikulua. Deialdiaren xedea

Orioko Udalak aitortza egingo die urtean zehar nabarmendu diren oriotarrei, urte bukaeran egingo den ekitaldi publiko batean. Orion jende asko dago herriari ekarpena egiten diona, bakoitzak bere eremutik: kultura, kirola, zientzia, gizartea... Batzuk oso agerikoak dira, baina beste batzuk, berriz, isilean pasatzen dira askotan. Guztien ekarria aitortu eta omentzea izango da deialdi honen xedea.

Herri-aitortzak arautzeko helburua dute oinarri hauek. Udalak orain arte antolatu izan dituen bestelako omenaldiak berrikustea eskatuko du herri-aitortzako ekitaldiak, gai hau dela-eta batzuetan sortu izan diren gorabeherak saihesteko: alor desberdinetako omenduen arteko desorekak, herritarren lorpen batzuk oharkabean geratzea...

Oinarri hauetan arautzen den herri-aitortza Udalak antolatuko du, baina, jakina, herriko elkarte edo taldeek antolatu ditzakete beste ekitaldi batzuk, beren kabuz, inor omendu nahi badute.

2. artikulua. Saria

Aitortza ohorezkoa izango da ez du sari ekonomikorik izango.

3. artikulua. Hautagai izateko baldintzak

Hautagai izateko, oriotarra edo Orion erroldatutakoa izan behar da; edo, bestela, herriko kultur edo kirol-elkarteren batean ibilitakoa edo dabilena.

Ezin izango dira omendu izateko hautagai izan:

- Fikziozko pertsonaiak.
- Lehendik ere omendutakoak.
- Hildakoak.
- Estatuko edo Autonomia Erkidegoko Administrazio osoko goi-karguak betetzen dituzten pertsonak, ezta udalbatzarra osatzen duten kideak edo udaleko konfiantzazko karguak ere, egoera horretan dauden bitartean.

4. artikulua. Hautagaiak aurkezteko prozedura

Herritarrek proposatuko dituzte HERRI-AITORTZA jasotzeko hautagaien izenak, Udalak prestatuko duen formulario baten bidez.

Hautagaitza proposatzearekin batera, hautagaiaren merezimenduak deskribatu beharko dituzte herritarrek: haren ibilbidea, lorpenak, balioak... baloratzeko modukoa iruditzen zaien guztia. Merezimendu horiek ilustratzen dituzten dokumentuak ere aurkeztu ahal izango dituzte: prentsan argitaratutako testuak, argazkiak...

5. artikulua. Mahai teknikoa

Ondoren, Udalak mahai tekniko bat izendatuko du, hiru udal-teknikarik eta bi zinegotzik osatua, herritarrek proposatutako hautagai guztien balorazioa egingo duena, irizpide hauen arabera:

- **Eragina:** Hautagaiek Orioko herriari egindako ekarpen positiboa: beren lanaren neurria eta garrantzia, jarduerak zenbat pertsonari eragin dion...
- **Ibilbidea:** Hautagaiak urtetan egindako ibilbidea.
- **Konpromisoa:** Gizarte-kohesioa eta komunitatearen ongizatea sustatzen dituzten jardueretan duten inplikazio-maila.
- **Balioak:** Udalak bultzatu nahi dituen balioak bultzatu izana: berdintasuna, herriaren onurako borondatezko lana, euskararen sustapena, talde-lanerako gaitasuna, erresilientzia...
- **Oreka:** Mahai teknikoak proposatutako hautagaien arteko oreka zainduko du: denak alor batekoak ez izatea (esate baterako, kirolekoak), zerrenda ez egotea lerratua generoaren aldetik edo adinaren aldetik...
- **Berrikuntza:** Ekimen original eta sortzaileak bultzatu izana.

Mahai tekniko horrek hautagaien merezimenduei buruzko txosten bat egingo du eta, horren bidez, 10-12 bat pertsona aukeratuko ditu proposatutakoen artean.

6. artikulua. Epaimahaia

Ondoren, Udalak epaimahaia osatuko du, mahai teknikoak izendatutako pertsona horien artean azken erabakia hartzeko.

Epaimahaiak erabakiko du zein diren, proposatutako hautagaien artean, HERRI-AITORTZA jasoko duten pertsona edo taldeak. Gehienez, 5 izango dira; hala ere, salbuespen gisa eta dagokion batzordean hala diktaminatuta, urteren batean izan daitezke gehiago).

7. artikulua. Epaimahaiaren osaketa

Epaimahaia honela osatuko da:

- Udalak izendatutako teknikari bat, mahaiaren jarduna bideratu eta akta jasoko duena. Horrez gain, hitza eta botoa izango du
- Orioko kultur eta kirol-elkarteetako lau lagun, hitza eta botoa izango dutenak. Lau lagun horiek aukeratzeko, Orioko elkarten zerrenda egingo du Udalak eta, zerrenda horretatik, zozketaz, lau elkarte aukeratuko dira. Ondoren, aukeratutako elkarte bakoitzak ordezkari bana izendatuko du elkartearen izenean jarduteko epaimahaian.

8. artikulua. Epaimahaikide izateko baldintzak

Ezin izango dira epaimahaiko kide izan:

- Omendu izateko hautagaiak.
- Orioko Udaleko hautetsi edo kargu publikoak.
- Proposatutako hautagaiekin familia-erlazio zuzena duten pertsonak.

Epaimahaikideek ez dute beren lanagatik inolako diru-saririk jasoko.

9. artikulua. Aitortza-ekitaldia

HERRI-AITORTZA ekitaldi ofizial batean jasoko dute irabazleek. Ekitaldia urtearen bukaeran antolatuko du Udalak, Gabonetako programazioaren barruan.

Herriko sortzaile batek egindako ikurra jasoko dute omenduek ekitaldi horretan.

10. artikulua. Zabalpena

Udalaren zeregina izango da sariari dagokion proiektzio soziala ematea, egoki ikusten dituen bitartekoak erabiliz.

Orio, 2024ko azaroaren 25a.